

DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN 2016
EUROPAKO KULTUR HIRIBURUA
CAPITAL EUROPEA DE LA CULTURA
DSS2016.EU



HAMAIIKA BEGIRADA
GURE BAZTERREI

URAK
LURRA

MIL MIRADAS A
NUESTRO ENTORNO

itsas fest!

ONDARRETA 27/08

EURIAREKIN TABAKALERA CON LLUVIA 11:00-00:30

BIZITZA
VIDA

#itsasfest



itsasfest.com

AURKIBIDEA

Zer da eta zer proposatzen dugu?

PROGRAMAZIOA - URA, LURRA, SUA:

- Pentsamendugunea
- Ekosistema
- Erakusketak
- Kontzertuak
- Zinemak eta natura
- Tailerrak
- Bertako artisau-janaria

HITZORDU BEREZIAK

- Bisitaldia Asier Hilariorekin. Abuztuak 25.
- Geo-ibilbideak Victor Hugo eta Paramoudrak.
- Mater Museoa. Hondakinen arrantza. Abuztuak 23.
- Urdaibai by Side of Tides. Irteera Stand Up Paddlean. Abuztuak 12.

ERANSKINAK

- *Itsasfest* eta haren arrastoa
- Lantaldea

***Itsasfest* - Ondarreta, 16.08.27**

Natura ospatzeko jaialdi esperimentalak, harekiko dugun harremana hobetzeko gogoeta egin dezagun nahi duena.

Zer da *Itsasfest*?

Itsasfest jaialdia topagunea da, gure natur ingurunea ospatzeko, horrekiko sentsibilizazioa sustatzeko eta hain ezaguna den jasangarritasunaz mintzatzeko. Askotariko espazioa da, ahots askoren batura, era guztietako hartzaile eta adinei zuzendua.

Diziplina anitzeko programak izaera ludiko eta dibulgatibo argia du; esperientziak eta ezagutzak inspiratu, deskubritu, partekatu eta trukatu nahi ditu, horretarako honako hauek erabiliz: tailerrak, pentsamendu-arloak, bertako produktuen dastaketa, naturako jarduerak, arte-interbentzioak, arte eszenikoak, musika eta zinema, besteak beste.

Lehen hitzordu bat, askoren lehena izan nahi duena: *Itsasfest* 2016, abuztuaren 27an Ondarretako hondartza eta lorategietan zein Haizearen Orrazian (Donostia). DSS2016ren proiektu honek Iberdrolaren babesa du, eta Surfilmfestibalek produzitu du.

Zer proposatzen dugu?

Itsasfest jaialdiaren bidez natur ingurune hurbilarekin (Euskal Autonomia Erkidegoa) harreman jasangarriagoa ikusarazi eta bultzatu nahi dugu. Nola?, hori ezagutzeko, gure buruari galderak eginez, proposamenak eta alternatibak aurkeztuz, bai eta horiekin batera agertzen diren kontraesanak ikusaraziz ere.

Gure lurraldearen mapa bat modu kolektiboan marraztea proposatu nahi dugu, horretarako hiru elementu hauek oinarri hartuta: URA – LURRA – SUA. Hori lortzeko esparru ezberdinetatik jarduera jasangarrien garapena eta hedapena planteatzen edo sustatzen ari diren erakundeak, elkarteak, kolektiboak, tokiko eragileak eta erakundeak ditugu, horretarako natura-ingurunean egindako lana zein ingurumen-sentsibilizazioa baliatuz edota alternatiba zehatzak bultzatuz.

- **URA:** gure kostaldea, gure ibaiak, uraren zikloa, erabilera eta kudeaketa, kalitatea, euskal herria eta itsasoa, arrantza eta gehiegizko arrantza, itsasbazterra, flora eta fauna babesteko proposamenak.
- **LURRA:** paisaia, biodibertsitatea, natura-ingurunearen erabilera, babestutako naturguneak, basoak, esku hartutako paisaia, nekazaritza eta abeltzaintza ekologikoak, artzaintza, natura-turismoa, bertako produktua, landagunea.
- **SUA:** kontsumo jasangarria, hiri berdea, hiri-eredua, ekonomia zirkularra, mugikortasuna, beherapena eta birziklatzea

PROGRAMAZIOA

HAMAIKA BEGIRADA GURE INGURUNEARI

Programazioan erakunde asko egoteak lagundu du edukia eraikitzen, haien lanaren bidez gure ingurunearekin erlazionatzeko modu berriak planteatzen baitituzte. Ikerketa-zentroek, gke-ek, sentsibilizazio-zentroek, erakunde publikoek, auzo-elkarteek, janari-ekoizleek, artistek eta abarrek, egindako proposamenen bitartez, hezi, harritu, motibatu nahi gaituzte, galderak egitera bultzatu nahi gaituzte dogma mugiezinak planteatu ordez.

Adin guztientzako egitaraua, 11etatik 00:30ak arte. Besteak beste, kontzertuak, zinema eta emanaldi txikiak, haurrentzako tailerrak, erakusketak artisau-ekoizleen bertako janaria eta uretako jarduerak.

Eta ekitaldiaren erdigunea, pensamendugunea (haizearen orrazia), non aditu garrantzitsuak bilduko diren gure basoen, ibaien eta itsasoen egoerari buruzko informazio-pildorak emateko, bizitzen ari garen aldaketa-egoerak azaltzeko zein etorkizunari buruzko orientabideak emateko.

GUNEAK:

- HAIZEAREN ORRAZIA: PENTSAMENDUA ETA ZINEMA
- HONDARTZA: KONTZERTUAK ETA TAILERRAK
- LORATEGIAK: EKOSISTEMA ETA TAILERRAK
- EDUARDO CHILLIDA PASEALEKUA: JANARIA ETA PRODUKTUA

EURIA BADA *Itsasfest* **TABAKALERAN** EGINGO DA.

PENTSAMENDUGUNEA

Haizearen Orrazia

KULTUR PAISAIA – URAK ETA IBAIAK – GEHIEGIZKO ARRANTZA – ALDAKETA GLOBALA – 0 KILOMETROA – ETA NIK, ZER EGIN DEZAKET?

Jaialdiaren funtsezko gunea. Foro horretan goi-mailako zientzialari, ikertzaile eta pentsatzaileek funtsezko gai batzuk modu arin, dinamiko eta aldi berean sakon batez aurkeztuko dituzte, naturarekin zer harreman dugun, gure bizi-ohiturak eta natura-ingurunearen kudeaketa ardatz hartuta.

Euskal Kostaldeko Geoparkeko zientzia-zuzendari Asier Hilariok gune honen edukiak eta hizlariak erabaki ditu. Harekin batera bisita bikaina egingo dugu flyschera, gure jatorri geologikoa ulertzeko lehen hitzordu handitzat har daitekeena.

Interbentzioak gai-multzotan daude antolaturik: URA - LURRA - SUA

#URA

NORENA DA EURIAREN URA?

Uraren jabetzari, haren lurraldeko banaketari eta haren erabileraren eta kudeaketaren ondoriozko nazioarteko gatazkei buruzko gogoeta orokorra.

Iñaki Antigüedad. EHUko Hidrogeologiako katedraduna eta «Prozesu Hidro-Anbientalak» ikerketa-taldearen arduraduna; talde horrek ura-lurraldea binomioa jorratzen du ibai-arroaren ikuspegitik. Klima-aldaketa baliabide hidrikoetan zer eragin izan litzakeen ikertzen ari dira orain. Uraren Euskal Kontseiluko eta EAEko Lurralde Politikako Aholku Batzordeko kidea da.

UHOLDEAK; NATUR HONDAMENDIAK EDO LURRALDEAREN INBASIOA?

Euskadiko natur arrisku indartsu eta ezagunenetako bat ardatz hartuta, ibarren okupazioari eta basoen kudeaketari buruzko gogoeta kritikoa egitea da helburua.

Iñaki Antigüedad.

ETA ITSAS MAILA IGOTZEN BADA... NOLA IZANGO DA KONTXAKO BADIA?

Zientzialarien aurreikuspenen arabera 2100erako itsas maila nabarmen handituko da. Zer eragin izango du horrek gure hondartzetan?

Adolfo Uriarte. Ozeanografoa eta AZTIko zuzendaria

Euskal Herriko Unibertsitateko Zientzien Fakultatean Geologia Zientzietan lizentziaduna eta Ozeanografiako doktorea Southamptongo Unibertsitatean (Erresuma Batua). Azti Tecnalia ikertzaile lan egiten du sedimentologian, itsas morfodinamikan eta jalkinen eta kutsatzaileen garraioan espezializaturik. Gaur egun AZTI fundazioko Itsas Ikerketa Unitateko zuzendaria da (AZTI Tecnalia), eta hauetako kide: Ingurumeneko Aholku Batzordea (Eusko Jaurlaritza), Naturzaintza (Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Saila), Urdaibaiko Erreserbarako UNESCO Katedrako Aditu Batzordea eta Kostalde eta Portuei buruzko Espainiako Jardunaldien Batzorde Iraunkorra. Europan, Arrantza Teknologiako Europako Plataformako eta Europako Batzordeko hainbat aholkularitza-taldeko kidea da.

ATZO, GAUR ETA BIHARKO IBAIAK. BIZITZA-BIDEAK KONTINENTEAN.

Ibaiak ur-emaria baino askoz gehiago dira. Historian zehar gaizki tratatu ditugu, baita bazter utzi ere, baina gaur egun, haien hobekuntza ingurumenarekin ardura handixeagoz jokatzeko duen gizarte baten isla izaten hasi da.

Joserra Díez. Biologian doktorea, Ibai Ekologiaren alorrean. EHUko irakasle agregatua, CIREFeko kide sortzailea eta FNCAko bazkidea. Ibaien funtzionamendua, ibaiertzeko landaretzaren kudeaketa eta ibilguaren konplexutasuna ditu ikergai batez ere. Babestutako Naturguneak planifikatzen eta kudeatzen lan egin du euskal administrazioarentzat, eta aholkulari zientifikoa da ibaiak leheneratzeko proiektuetan.

ARRANTZA EDO GEHIEGIZKO ARRANTZA

Arrantzaren egoerari buruzko gogoeta, ekologiatik, gure arrantzaleak eta haien arrantzategi nagusiak oinarri hartuta.

Andres Uriarte. Biologia Zientzietako doktorea Euskal Herriko Unibertsitatean, 25 urte baino gehiagoko esperientzia du arrain-populazioen biologiaren, ugaritasunaren eta dinamikaren azterketan. Euskal Autonomia Erkidegoko arrantza pelagikoaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko proiektuetako ikertzaileburua da 1987tik AZTI teknologia-zentroan. Arrantza-baliabideak ebaluatzeko zuzeneko (arrain-arrautzen kanpainak eta kanpaina akustikoak) eta zeharkako metodoetan aditua da, baita arrantzategien kudeaketa prestatzen ere. Nazioarteko proiektu askotan buru eta laguntzaile aritu da, baita hainbat aditu taldetan ere Itsasoa Ikertzeko Nazioarteko Kontseiluaren eta nazioarteko beste erakunde batzuen barruan. Antxoaren arrantza kudeatzeko plana (2008) prestatzeko lanetan modu aktiboan hartu du parte, baita oraingo berrikuspenean ere (2014), baita sardina iberiarrarenean ere. Komunikazio idatzi ugari egin ditu; horietatik 50 inguru zientziaren arloko liburu edo artikulutan (SCI Journals).

EUSKALDUNEN ITSASOA.

Begirada euskaldunen itsasoko historia zirrargarriari, gure arbasoek itsasoaz egindako erabilerari.

Mikel Leoz. Albaola Euskal Itsas Faktoria proiektuaren zuzendaria

#LURRA

KONTUZ! GALZORIAN

Galzoriko espezien zergatiak, bilakaera eta anekdotak, eta gure lurraldeko animalia eta landare bitxienak.

Iñaki Aizpurua. Biologoa, flora eta faunan aditua. Ihobe sozietate publikoko (Eusko Jaurlaritza) Natur Sistemak Saileko teknikaria. Sail hori Europaren intereseko habitatak eta landareak aztertu eta kontserbatzeaz arduratzen da. Euskal Herriko landareak eta inguruetakoa sailkatzeko gako irudidunak liburua eta eskualde horretako florari buruzko artikulu ugari idatzi ditu. Flora Ibérica proiektuaren lantaldeko kidea, eta Pirinioetako Flora Atlasaren koordinatzailea. Conservatoire Botanique National Sud-Atlantique batzorde zientifikoko kidea, Germoplasmako Euskal Bankukoa eta Pirinioetako Lan Elkarteko Klima Aldaketaren Pirinioetako Behatokiaren batzorde teknikoko kidea.

ZER EGITEN DUGU GURE BASOekin?

Gure basoen bilakaeraren historian zeharreko azterketa eta gogoeta bat zer mendi nahi dugun eta baso-kudeaketak klima-aldaketaren kontrako borrokaren funtsezko elementua izan daitekeela azaltzeko.

Jorge Askasibar. Basoa fundazioko presidentea. Gipuzkoako Ozeanografia Fundazioaren Patronatuko, Eusko Ikaskuntzako, Euskal Herriaren Adiskideen Elkarteko eta Aranzadi Zientzia Elkarteko kidea.

GURE PAISAIAREN LOREZAINAK. NOIZ ARTE?

Baserriek landa-paisaia antolatua zaindari gisa betetzen duten jarduera garrantzitsuari buruzko eta ustiategi horiek aurrerantzean ere eginkizun hori betetzeko dituzten zailtasunei buruzko gogoeta.

Jakoba Errekondo. Nekazaritza-ingeniarria eta kultur paisajismon aditua. Bizi baratzea. Garaian garaikoa garaiz eman eta hartu liburuaren egilea.

ALDAKETA GLOBALA ETA LURZORUA. BEGIRADA HARRIGARRIA.

Lurzoruaren erabilera aldaketa globalean gutxien ezagutzen den funtsezko elementuetako bat da. Aldaketa harrigarria da.

Antonio Cendrero. Geodinamikako katedraduna eta irakasle emeritua Kantabriako Unibertsitatean. Zientzia Zehatz, Fisiko eta Naturalen Errege Akademiako kide numerarioa. Irakasle/ikertzailea AEB, Irak eta Argentinan. Natur arriskuei, geomorfologiako prozesuen gaineko giza ekintzari eta aldaketa globalari buruzko nazioarteko proiektuetako ikertzailea. Nazioarteko 15 erakunde edo batzordeko kidea eta zientziaren arloko 280 argitalpen baino gehiagoren egilea.

#SUA

0 KILOMETROA. OSASUNA ETA ASKOZ GEHIAGO

Bertako kalitateko produktuen kontsumoa bultzatzeko beharrari buruzko gogoeta, osasunaren, tokiko ekonomikoaren eta gizarte-justiziaren berme delako.

Amaia Otazo. Kutxa Ekoguneko Kontsumoaren eta Ohitura Jasangarrien arloko koordinatzailea. Lizentziaduna Ingurumen Zientzietan (2001-2004). Ikasketak Italian amaitu zituen, eta harrez geroztik ingurumen-hezkuntzaren arloan egin du lan herritarren parte-hartzeari buruzko proiektuetan (Agenda 21) eta sentsibilizazio-kanpainetan. Ekoliderrak sareko kidea da.

ETA NIK, ZER EGIN DEZAKET?

Gogoeta bat, gizarte jasangarriago baterantz bideratu gaitezen guk banaka zer aukera ditugun.

Amaia Otazo.

KLIMA-ALDAKETA EDO IRAGARRITAKO HONDAMENDIAREN KRONIKA

Klima-aldaketa gizarte modernoak gaur egun aurre egin beharreko ingurumen-erronka handiena da ziur aski. Zientzialariek hitz egin dute jada. Tenperaturak gora egingo du, eta ondorioak larriak izango dira. Erronka handi horren parametro politiko, ekonomiko eta sozialei buruzko azterketa. Aurrerapenak eta atzerapenak.

Elisa Sainz de Murieta. Geologiako doktorea Euskal Herriko Unibertsitatean (EHU). Geologia-zientzietako lizentziaduna eta Ingurumeneko Ingeniaritza eta Kudeaketako masterduna. Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailean Biodibertsitateko zuzendaria izan zen. Garai horretan zientziak erabakiak hartzeko oinarritzat zer garrantzi duen ikusteko aukera izan zuen; horregatik, EHUko Kuaternarioa: Ingurugiro Aldaketak eta Giza Oinatza izeneko masterra ikasi zuen. Basque Centre for Climate Change (BC3)

erakundeetan lan egiten du 2010etik aurrera. Erakunde horretan klima-aldaketaren ondoriozko euskal kostaldeko itsas mailaren aldaketei buruzko doktorego-tesia garatu du. Tesian itsas mailaren igoeraren ingurumen- eta ekonomia-inpaktuak aztertu zituen Muskiz, Plentzia eta Urdaibain.

LEIZEETATIK AZKEN BELAUNALDIKO MUGIKORRETARA

Kontsumoaren eta kulturaren ondorioz pairatutako eboluzio-atzerapenaren eta egokitzapenaren azterketa kritikoa.

Paco Etxeberria. Medikuntzako doktorea, antropologian eta auzitegiko biologian aditua. Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea eta Aranzadi Zientzia Elkarteko presidentea; elkarte horretan Gerra Zibileko desagertuak eta hobi komunak aztertzeko lantaldea zuzentzen du Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailaren aginduz. Gaur egun giza eskubideen urraketaekin zerikusia duten ikerketa-proiektuetan parte hartzen du, nola Espainiako Estatuan hala atzerrian; besteak beste, Salvador Allende, Victor Jara eta Pablo Nerudari buruzko ikerketetan.

Emaús, Olatukoop, Circular Hub eta Saretuz erakundeen arteko elkarrizketa

CIRCULAR HUB

Aitor San Francisco.

SARETUZ

Saretuz Donostiako kontsumo kontziente eta eraldatzailearen aldeko sarea da. Haien ustez kontsumo kontziente eta eraldatzailea eraikitzen duen kontsumoa da, eta,aldi berean, funtsezko tresna ere bada bizitza erdigunea den eta ekonomia haren zerbitzura dagoen gizarte batean bizi ahal izateko; gizarte horrek, halaber, justizia, emakumeen eta gizonen zein herrien arteko ekitatea, elkartasuna, naturarekiko oreka, konpromisoa eta lankidetzaren izan behar ditu oinarri. Saretuz eraldaketa eta emantzipaziorako hezkuntza-ekimena da, Donostiako Udalak 2012tik babesten duena.

EKOSISTEMA

Lorategiak

EKONOMIA ZIRKULARRA - LANDAGUNEA - JABEKUNTZA -
BERRERABILERA - BERTAKO PRODUKTUA - INGURUNEA
BABESTEAK - FLORA ETA FAUNA

Jaialdiaren gune ezberdinetan fisikoki dauden erakunde guztiek osatzen dute EKOSISTEMA. Ondarretako lorategien eta Eduardo Chillida pasealekuaren artean, 30 geldialdi proiektuarekin bat egin duten erakunde ezberdinen lana ezagutzeko.

Kutxa Ekogunea parkea

Kutxa Ekogunea ingurumenari buruzko parke tematikoa da, jasangarritasuna helburutzat duena. Donostiako hegoaldean dago, Zabalegin, nekazaritza-eskola zaharrea. Kutxa fundazioak garatutako proiektua 25 hektareako parke irekia da, eta aisia, ikaskuntza zein berrikuntzarako toki du. Ingurunean kultura ekologikoa zabaltzea du helburutzat, pertsonen ingurumen-kontzientziatiaz ekintzara igarotzen lagunduz. Hartarako, bisitariei ereduak erakusten dizkiete, eta ekintza zein aldaketarako prozesuak bultzatzen dituzte. Aldi berean, Kutxa Ekoguneak herri eta eskualdeetan proiektuak bultzatzen ditu beste erakunde batzuekin aliantzak eginez, jasangarritasunerako sare handia eratuta.

Kutxa Ekoguneak bi tailer emango ditu *Itsasfest* jaialdian 3-12 urte bitarteko umeentzat. Lehena uretatik gertu bizi diren landareei eta algei buruzkoa, eta bigarrena haziei eta landareak haz daitezkeen azalerei buruzkoa.

Cristina Enea Fundazioa

2008an Cristina Enea fundazioa eratu zen, Donostiako Udalak sustatuta, eta Gipuzkoako Foru Aldundia patroi fundatzaile iraunkorra izanik. Botere publikoen eta erakunde pribatuen arteko lankidetzaren ingurumen-dibulgazioaren eta -sentsibilizazioaren arloan egituratzea helburu hartuta sortu zen. Cristina Enea fundazioak Ingurumen Baliabideen Etxea, Urgulleko Natur Txokoa eta Ullia Interpretazio Zentroa kudeatzen ditu, baita Iraunkortasunaren Behatokia ere, eta Bizikletaren Behatokia zuzentzen eta kudeatzen du.

Cristina Eneak umeentzako (5-12 urte) bi tailer egitea proposatzen du: «Erleak, bai familia bitxia» eta «Itsasoko pertsonaiak».

www.cristinaenea.eus

Uliako Lore Baratza

Donostia, hiri berde baten alde... Uliako Lore Baratzak taldeak konpromiso hori hartu dute Uliako Mintegien parkearen kudeaketa bere gain hartzean. Bertan daude XIX. mendeko bi ur-biltegi zahar, arkitekturako hainbat elementu interesgarri eta berezko flora eta fauna, baita berdegune handia ere. Auzoak eta bizilagunek herritar guztiei zabaldu diete, Donostiako ehun urtetik gorako parkearen kontserbazioa defendatu eta hobetzeko, bizi-kalitatearen oraingo eta etorkizuneko bermetzat. Konpromiso horren bidez Aranzadik Gipuzkoa osoan espazio berezi eta paregabetsat jo duen lursail handi bakarra babesten dute Donostiako Udalak urbanistikoki ustiatu edo garatzeko ahaleginetatik.

Parkeak eta elkartek proiektua aurkeztuko dute *Itsasfest* jaialdian, Eusko Jaurlaritzaren Elkarlan saria jaso duen proiektua, alegia. Txiki-Foxesen eskutik umeentzako 2 tailer ere dinamizatuko dituzte.

Txita - Garraio jasangarriaren ekintzaileak

Salgaiak kargarako bizikleten bidez banatzeko sistema eskaintzen duen Estatuko lehen enpresa da Txita. Erdialdeko biltegitik, hiriaren errealitatera guztiz egokitutako ibilgailu jasangarriaren flotarekin, hiriko merkantzien banaketan jauzi ebolutiboa erraztera zuzendutako operatiba eskaintzen du, zerbitzua zabaldua eta CO2 isuriak murriztuta. *Itsasfest* festibalean CYCLING WITHOUT AGE aurkeztuko dute.

Hazi - Nirea. Landa, itsasbazter eta elikagaien garapena.

NIREA Hazi fundazioaren (Eusko Jaurlaritz) programa bat da, lehen sektorearen sustapena eta landa eta itsasertzaren biziberritzea azken helburua duena eta Euskadiko lehen sektorea osatzen duten pertsonak protagonista dituen. Ekimen horren bitartez, ezagutzera eman nahi da landa-ingurune biziak duen garrantzia, daukagun gizartearen ereduaren barruan lehen sektorearen zeregina eta osatzen duten pertsonak balioestea. Helburua da gizarteak Euskadiko lehen sektoreko produktuak identifikatzeko gauza izatea (bertako, gertuko eta kalitateko produktua), erosteko erabaki orok zuzeneko eragina baitu gure inguruko eredu ekonomiko, sozial eta kulturalen.

Nirea ekimenak umeentzako proposamen hezitzaileekin hartuko du parte *Itsasfest* jaialdian, sasoiko produktuak ezagutu ditzaten. Halaber, programa azaltzen ere arituko dira.

Emaús

Emaús gizarte-izaerako erakundea da, erakunde laikoa, irabazi asmorik gabekoa, eta Emaús International mugimenduko kidea. Haren helburua prozesu eraldatzaileak

sustatzea eta laguntzea da, bai indibidualak bai kolektiboak, gizarte, ekonomia eta ingurumenaren alderdietan. Bazterketa-egoeran edo arrisku-egoera larrian dauden pertsonen bizi-baldintzen hobekuntzari eta jabekuntzari lehentasuna ematen die. Horretarako, gizarteratzeko eta laneratzeko programak zein jasangarritasunerako sentsibilizazio- eta hezkuntza-proiektuak garatzen dituzte, baita garapenerako lankidetzako proiektuak eta ekonomia solidarioko enpresak ere.

DonostiTruk

Donostiako udal-gobernuko Ingurumen Sailak antolatutako bigarren eskuko merkatua da Donostiaturk. Hauek ditu helburu nagusizat: herritarrei objektu erabiliak berrerabiltzeko aukera erraztea, berrerabileraren eta hondakin-prebentzioaren filosofia eta praktika bultzatzea, eta bigarren eskuko merkatuei prestigioa ematea.

Merkatu hori hilero egiten dute Easo plazan, hirugarren larunbatean, baina edizio berezia izango du *Itsasfesten*, kirolarekin eta natura gozatzearekin zerikusia duten produktuetara orientatuta (kirol eta kanpineko materiala, arropa eta material teknikoa –surf, eskalada, eski zein snowboard, urpekaritza, uretako kirol, bizikleta eta abarretarako–).

Surfrider Foundation eta Donostiako Udala - Ingurumena

Donostiako Udalak eta Surfrider España elkarteak hirian erabilera bakarreko plastikozko poltsen erabilera murrizteko egindako hitzarmenaren aurkezpena. Horrez gain, abuztuaren 27an bertan itsasontzian irtenaldia egingo dute plastikozko zaborrak gertuko kostaldean zer eragin duen ikusteko.

EIBE (Euskal Izurde eta Baleen Elkartea)

Irabazi asmorik gabeko elkartea da, 2003an sortua, euskal itsasbazterrean dauden zetazeoak aztertu eta zaintzeko plataforma eratzeko beharra ikusita. Bizkaiko golkoan bizi diren zetazeoak kontserbatzea du azken helburutzat, baita Kantauri itsaso ustiatuko itsas baliabideak zaintzea ere.

Erakusketa baten bidez EIBE elkarteak urotan oraindik dagoen natur aberastasunaren zati bat ezagutaraziko du *Itsasfesten*; horretarako, euskal kostaldean bizi diren zetazeo-espezie nagusien argazkiak erabiliko dituzte. Euskal itsasbazterrean elkarteak nabigatu dituen 10.000 milia baino gehiagotan lortutako materialaren zati bat dira argazki horiek.

Eguzki

Boluntarioek osatutako Euskal Herriko erakunde ekologista da Eguzki. Nahi duten pertsona guztiek parte har dezakete bertan, eta ezagutzen zein gaitasunen araberako

ekarpenak egingo dituzte horiek. Erakundeak ez du loturarik alderdi politiko, erakunde, enpresa edo presio-taldeekin, eta aldarrikapena zein kontzientziazioa, mobilizazioa eta azterketa uztartzen ditu.

Ulia-Jaizkibel itsasbazterren aurrean (Donostia-Pasaia-Hondarribia) dagoen 13.000 hektareako zerrenda pelagikoa babestutako itsas gune deklaratzeko proposamenaren berri eman nahi dute *Itsasfest* jaialdian, bitxitasun, ahultasun, garrantzi edo berezitasunagatik babes berezia merezi duten itsas inguruneko ekosistemen, komunitateen edo elementu biologiko zein geologikoen kontserbazio-egoera ona bermatzearren.

ERAKUSKETAK

Lorategiak eta Eduardo Chillida Pasealekua

Aquariuma

Joseba Mercader

Joseba Mercader tolosar geldiezina da, askotariko arte-diziplinak lantzen dituena: argazkia, bideoa, diseinu grafikoa, 3d multimedia jorratzen ditu, eta baztertutako objektuak erabiliz ere egiten ditu lanak. Orain, Untzi Museoa, pieza erraldoi bat egiten ari da itsasoan bildutako plastikozko botilak, egurrak eta bestelako objektuak erabiliz. Ez dira ozeanora itzuliko, eta jaialdian Ondarretan ikusgai egongo den lanaren zati izango dira.

Untzi Museoa

Untzi Museoa jaialdiaren museo laguntzaileetako bat da. Hainbat irudi lagako ditu abuztuaren 27an erakusteko. Museoaren parte-hartzea hainbat alderditan gauzatuko da. Alde batetik, zorionez, Mirakruz kaleko urpekari ezaguna kalera aterako dugu berriro. Pertsonaia kutun horrek Siebe Gorman markako eskafandradun urpeko jantzia darama, eta urte askoan Mirakruz kaleko industria-horniduren (EMICA) saltokian egon zen ikusgai.

Eta, bestetik, museoa funtsezko parte-hartzea izan du Joseba Mercader artistaren lanaren garapenean, jaialdiaren esparruan aurkeztuko den balea erraldoia eraikitzeko prozesuan hartu baitu.

Untzi Museoa Gipuzkoako Foru Aldundiaren mendeko zentroa da, eta, 1991n ireki zenetik, euskal itsas historia eta ondarea zaindu, aztertu eta zabaltzeko lanean aritu da. Gaur egun, «Emakumeak eta itsasoa» aldi baterako erakusketa ikus daiteke museoan.

Las Bestias Danzan

Las Bestias Danzan ó el sigiloso conjuro de lo salvaje La Liga konpainia mexikarraren interbentzio ibiltaria da, ikusleen partaidetza aktiboa duena; animalien dinamika eta haien adierazpen-aukerak oinarri hartuta taxututa dago. Lan horretan hainbat animalia eskala errealean irudikatzen dituzten 4 eta 6 artefaktu inguru agertzen, mugitzen dira eta dantza egiten dute konpainiak eta ikusleek inprobisazioz egindako soinuen erritmoaren arabera. Lanak elementuak kaleko herri-tradizioetatik (kalejirak, prozesioak) zein aire zabaleko arte-adierazpen garaikideetatik (instalazioak, performanceak) hartzen ditu.

Donostian abuztuan sortutako «basapiztiak» abuztuaren 27an aterako dira argitara, eta hiriko erdialdea zeharkatuko dute Ondarretara iritsi arte. Kalejiraren ibilbidea aurrerago baieztatuko dugu. Herritar guztiak izango dute harekin bat egiteko aukera animaliak zuzentzeko.

LAGUNTZAILEEN ERAKUSKETAK

Itsasfest jaialdia osatzen duten gaietakoren batekin harremana duten jaialdiaren lagunen erakusketak, datozen asteetan bisitatu ahal izango dituzunak.

«Emakumeak eta itsasoa», Untzi Museoa.

Museoak berak prestatutako aldi baterako erakusketa horretan emakumeek historian zehar itsasoarekin zer harreman izan duten ezagutaraziko dute, antzinatik itsas munduaren iruditerian eta mitologian betetako tokia ahaztu gabe. Erakusketa ikuspegi globala hartuta hurbiltzen da gai horretara, baina arreta berezia jartzen du euskal kostaldeari buruzko alderdietan.

2016ko azaroaren 19ra arte.

Judas Arrietaren The Blue Symphony Donostiako Aquariumean.

Erakusketak itsas pinturen generoari buruzko gogoeta egiten du, eta genero hori berriro interpretatzea planteatzen du. Erakusketan euskarri ezberdinetako lanak daude, hala nola pinturak, marrazkiak zein surf- eta skate-oholen gainean egindako pinturak.

2016ko irailaren 15era arte.

Ur handiak, ur meheak. Danubio eta Urumearen aztarnak. Cristina Enea

Danubiok eta Urumeak ibilbide paraleloa egiten dute erakusketa honetan; biek ala biek eskala oso ezberdineko bi lurralderen ardatz dira, baina zatiz zati askotariko kulturetan komunak diren ibaiarekiko harremanak garatzen dituzte. Erakusketan ibai horien inguruan garai ezberdinetan eta toki ezberdinetatik lan egin duten artistek egindako argazkiak, soinu-instalazioak, ikus-entzunezko lanak eta lan grafiko zein plastikoak aurkituko ditugu. Artistak: Inge Morath, Annea Lockwood, Peter Cusack, Don Herbert, Ruth Montiel, Xabier Erkizia, Nagore Legarreta, Asier Gogortza.

2016ko irailaren 18ra arte.

KONTZERTUAK

Ondarretako hondartza

Itsasfest jaia ere bada, naturaren ospakizuna hiriaren eta naturaren arteko topaketa hoberen irudikatzen duen eremuetako batean. Hondartzako eszenarioan eskainiko dugun proposamenak Ondarreta elkargune paregabe bihurtu nahi du abuztuaren 27an, larunbatean. *Itsasfest* jaialdiaren balio eta inspirazioekin lotutako hainbat talde:

Delorean

Delorean taldeak *Itsasfesten* eta lehen aldiz Donostian lan berria aurkeztuko du: Muzik. Taldeak abuztuaren 27ko gauean (larunbata) joko du, 23:00ak aldean, Ondarretako hondartzako agertokian.

Delorean taldeak denbora luzea darama poparen eta elektronikaren artean mugitzen; dance abestiak pop balira bezala idazten eta pop diskoak dantzatokitarako ekoizten. Azken lana Muzik du, luze ondutako diskoa, taldea elektronikaren ildora berriro daramana.

Euskal Herrian sortutako laukoteak paleta sonikotik rockaren osagaiak kentzea erabaki zuen, eta sinteek eta beatek gidatzen uztea. Lan horretan four-to-the-floor erritmoak 1980ko hamarkadako dreamy poparen eta house musika garaikidearen artean daude.

Izenburuak, Muzik, musika elektronikoaren ondarea besarkatzen du, baina LParen leitmotivaren berri ere ematen du: musika bera. Bederatzi abesti horiek soiltasunetik daude diseinaturik, baina ez dago sinpletasunik ondoren eskaintzen duten musikan: elektronika modernoko diskoa da, ñabardura emozional eta gogoetatsu batez bilduta.

Baxua: Ekhi Lopetegui. Gitarra: Guillermo Astrain. Teklatua: Unai Lazcano. Bateria: Igor Escudeo.

Baywaves

Primavera Sound eta FIB jaialdietan egon ostean, erdia kantabriarra eta erdia madrildarra den talde hau gure eszenatokian joko du melodia eguzkitsuak eta itsas keinuak nahasten dituzten abestiak aurkezteko; hipnopol sound esaten diote horri haiek.

Baywaves taldeak psikoledia leuneko soinuak, sinteak, gitarra ozenak eta ahots itsaskorra eskaintzen ditu; soinu-banda bikaina da oinak uretan ditugula entzuteko.

Haien lehen lana Only For Uz da, Foehn Records diskoetxearekin aurtengo martxoan argitaratuta, eta lehen aldiz joko dute hirian.

Mursego plays JEAN PAINLEVÉ

(Ikus Zinemaren atala)

Maré Baixa taldea

Maré Baixa taldea, hasieran Martin Asarian uruguaitarrak eta Mikel Makala euskal alemaniarrek osatu zuten. Geroxeago, Denis Barzaga perkusio-jotzaile kubatarrak eta Jimmy Bidaurreta teklista euskal errusiarrek bat egin zuten proiektuarekin. Kanta originalen erreperorioa sortu dute, bossa nova garaikidetik Brasilen sortutako sustrai afrikarreko erritmoetara (hala nola mangue beat, maracatú, carimbó...). Tradizioa eta abangardia elektronikoa neurri berean nahasten dituzte. Abesti guztiak portugesez kantatzen dituzte. Udaren amaieran estudioan sartuko dira lehen albuma grabatzeko Orrua Diskak diskoetxearekin.

Play 'N' Kids

Ringo Star, Angus Jones, Stevi Wonder, Maikel Jackson eta Freddi Mercuri rock-izarrak hondartzan familia osoarentzako kontzertu paregabea eskaintzeko bilduko dira. SuperStar zeremonia-maisuak aurkeztuta, pop rockaren abesti arrakastatsuenak joko dituzte, eta kanta bakoitzean jarduera bat proposatuko digute kontzertuan era aktiboan parte har dezagun. Musikaz gozatzeko formatu originala umeentzat.

Ahotsa: Iñaki Cerrajería. Baxua eta koruak: Jorge Sánchez. Gitarra: Argoitz Aranguren. Bateria: Iván Román. Teklatua: Álvaro Bazán. Zeremonia-maisua: Eneritz García

P3z Dj

Javi P3zen urpeko uretako dj saioa bisualekin eta MAITASUN handiarekin. Javi Pez dj bat da

ZINEMA ETA NATURA

Haizearen Orrazia

Mursego plays JEAN PAINLEVÉ

Jean Painlevé urpeko zinema poetikoaren aitzindaria da. Urpeko sekuentziak erabiltzen dituen lehen zinemagilea da, zehazki L'Hippocampe (1931) filmean, eta harrez geroztik 200 film baino gehiago egin zituen. Parisko surrealismoaren eta abangoardiaren eragina jaso zuen 1920ko hamarkadan; haren irudien ikuspegi plastikoa eta umore iraultzailea miresten zituen. Lagunak izan zituen Man Ray, Sergei Eisenstein, Jean Vigo, Luis Bunuel edo Calder. Bizitza osoan jakin-min handia agertu zuen eta horrek zuzendu zuen zinema dokumentalarekin eta itsas ingurunearekin zuen konpromisoa. Painlevéren lanean berezitasun eta zorrozatasun handia dago, haren aberastasun handiaren oinarri.

Mursego plays Jean Painlevé. Cristina Eneako ZoOo proiektuaren barruan 2010ean eginiko lehen emanaldiaren ostean, Musergok berriro ere egingo du Jean Painlevéren film laburren sorta baten soinu-banda. Proposamen aparta; konbinazio natural honetan artista paristarraren irudi poetiko eta abangoardistak Maite Arroita jauregiaren soinu paregabearekin nahasiko dira.

Gutik Zura. Zinemaldian estreinatuko duten dokumentalaren teaser kanpaina.

Proiektuaren zuzendaritza: Mari Jose Barriola

Gidoia: Jon Maia Soria

Euskal Herriaren idiosinkrasiak basoa eta zura ditu oinarri. Dokumental hau antzinatasunetik etorkizunera egindako bidaia da, non pertsonaren eta zuraren arteko harremana erakusten den, horretarako pertsonen bizi-esperientzia eta adituen iritzia baliatuz basoaren eta zuraren iraganeko, gaur egungo eta etorkizuneko gako nagusiak erakusteko historiaren eta istorioen konbinazio poliedriko baten bidez.

Som Pastor. Borja Zausen.

Miquelek 11 urte ditu eta Santa Eugènia herrixkaren kanpoaldean bizi da (Mallorca). Goizero, eskolara joan aurretik, animaliak zaintzen ditu. Miquel bertako heroi txiki soil bat da. Kontzientzia argia du eta zer jaten dugun eta hori gure sukaldera nola iristen den jakitea garrantzitsua dela esaten du. Haurtzaroaz gozatzen du amets egiten duen heldu konprometitu bihurtzeko. Umeak nekazariaren lanari buruzko gogoeta egiten du.

Itsasoa eta Lehorra. Patrick Trefz

Lan abstraktu eta poetikoa, Jim Denevan artistak Mundakan 2011ko irailaren 3an eginiko artelana sortzeko eta suntsitzeko prozesua aurkezten duena. Marea oso batean, artistak Mundakako hareatzan esku hartu zuen, Urdaibaiko hurriz-adar eta eskuare batez bakarrik lagunduta, artelan erraldoia marrazteko; berehala ingurumenaren aldeko egiazko manifestu bihurtuko da, ikuslearen arreta osoa Urdaibaiko itsasadarreko ekosistema ahulean biltzera daramana. Abesti ederra Mikel Laboarena da, eta haren titulua gure egin dugu euskaraz itsasbehera esan nahi duelako.

Brooklyn Farmer.

The Art of Flying. Jan Van Ijken

Narcose. Guillaume Néry

Apneako munduko txapelduna den Guillaume Néryk murgilaldi sakonenetako batean egindako barne-bidaia kontatzen du film laburrak. Esperientzia fisikoa eta haren haluzinazioen narratiba hartzen ditu oinarri. Filmak errealitatea eta irudimena txandakatzen ditu giza gaitasunak noraino eraman daitezkeen erakusteko; halaber, atletaren barne-munduaren eta uretako ingurunearen arteko muga intimoa ezagutarazten du, pertsonaren eta urpeko munduaren harremana ulergarri eginda.

TAILERRAK

Lorategiak eta hondartza

Mater Museoa - Sentsibilizazioa - Itsas zaborrak

Bizkaiko golkoan 50 milioi tona hondakin baino gehiago daude itsas azalaren eta 200 metroko sakoneraren artean, eta 50.000 tona daude golkoko hondan. Azterketek baieztatu dute itsas elikadura-katea (gizakia haren mende dago) kutsatuta dagoela zaborretik etorritako plastikozko substantziekin.

Ingurumen-arazo hori ikusita, MATER museo-itsasontziak (matermuseoa.com) bi sentsibilizazio-jarduera proposatzen ditu *Itsasfesten* parte hartzen dutenen artean kontzientzia sortzeko: hondartzako sentsibilizazio-tailer didaktikoetan parte hartzea, eta uretako garbiketan zuzenean esku hartzea, museo-itsasontzitik bertatik zabor-arrantza eginez abuztuaren 23an. Nahi duenak du aukera irtenaldi horrekin bat egiteko.

> Itsas zaborrari buruzko sentsibilizazio-tailerra Ondarretan (haurrentzat)

Arrantzatutako hondakinen bidez zabor horren ezaugarriak, jatorria eta arazoak aztertuko ditugu. Ikerketa eta partaidetzako metodologia aktiboa erabiliko da, ingurune natural eta soziala hobeto ezagutzen laguntzeko. Ingurumenaren aldetik balio eta jarrera arduratsuak bultzatu nahi ditugu, gogoeta kritikoa eta ingurumen-arazoak konpontzen parte hartzea sustatuta.

Maisor

Tokia: janariaren gunea

Itsasfest jaialdiaren barruan Maisor artisau kontserba-fabrikak «Antxoak prestatzeko tailerra» bi txandatan emango ditu. Parte-hartzaileek antxoak xerratan zatitzen ikasiko dute, eta prestatzen duten flaskoa eramango dute.

Truca Rec

Lekua: Domoa

Truca Rec sormenezko birziklatzea egiten duen kolektiboa da: ebaki, josi, mintzatu, diseinatu, esperimentatu, sortu eta birsortzeko gunea. Duela zazpi urte baino gehiago hasi zen Truca Rec, unean uneko esperientzia autodidakta modura, baina irabazi asmorik gabeko elkarte bihurtu da jada. Gaur egun lau kide finko ditu: Ana, Raúl, Alessio eta Estitxu.

> Poltsa- eta motxila-tailerra (8 urtetik aurrera)

Tailer honetan poltsak edo motxilak egingo dituzte birziklatutako ehun-materialak erabiliz, horretarako ekoizpen-prozesu errazak garatuz. Parte-hartzaile bakoitzak birziklatutako poltsa edo motxila eskusiboa egin ahal izango du.

Iraupena: 2-3 ordu, taldearen ezaugarrien arabera.

Adina: 8 urtetik aurrerako edonorentzat.

Musikanaiz

Lekua: Domoa

Musikanaiz zentroan pertsonen ikaskuntzaren, aisiaren eta garapenaren zati da musika. Musikaterapia, musika-estimulazio goiztiarra edota musika-tresnen eskolak dira haren proiektu batzuk, sormena oinarri duen metodologia berritzaileari jarraikiz.

> Instrumentua egiteko, birziklatzeko eta musika-inprobisaziorako tailerra (haurrentzat)

Tailer honen helburua da parte-hartzaileei eguneroko objektuekin, baita baztertutakoekin ere, instrumentuak egin eta jotzen irakastea eta, horrekin batera, oraingo hondakin-sorreraz eta berrerabili beharraz kontzientziaztea. Instrumentuak egindakoan, horiek jotzeko gaitasuna lortuta, marching band bat antolatuko dugu umearen intuizioa eta jolasa oinarri hartuta. Helburuak: umearen sormena piztea eta birziklatzea sustatzea.

Hackprende

Lekua: Domoa

Gure mundua digitala eta teknologikoa da.

Cristina Enea

Lekua: Domoa

Erleak, bai familia bitxia! (5 eta 10 urte artean)

Itsasoko pertsonaiak (6 eta 12 urte artean)

Kutxa Ekogunea

Lekua: Domoa

> Hiri-baratzeko tailerra (15 urtetik aurrera)

Edozein etxek izan dezake baratzea, txikia bada ere. Tailer honetan etxean belarrak, berdurak, barazkiak eta frutak hazteko gakoak emango dizkizugu.

> Itsas hondoko paisaiak (3 eta 12 urte artean)

Non hasten dira landareak? Sustraiak non jartzen dituzte? Lurrean! Ba al dira itsasoan bizi daitezkeen landareak? Zer dira algak eta non dituzte sustraiak?

> Lur bizia eta haziak (3 eta 12 urte artean)

Lurra! Landareek elikagaiak lurretik hartzen dituzte sustraien bitartez. Baina lur mota ezberdinak daude eta landare batzuk zementuan edo harean haz daitezke. Tailer honetan landareak zer azaleratan bizi daitezkeen ikasiko duzu.

BERTAKO ARTISAU-JANARIA

Eduardo Chillida pasealekua

Abasotas

Abasotas Food Studio gastronomiako proiektu alternatiboa da. Sorreratik bertatik esperientzia ahaztezina eskaintzea bilatu dute produktuen irudia eta prestaketa zainduz. Produktuak neurri handi batean Bizkaitik datoz.

Pantori

Penintsula osoko eta atzerriko artisau-produktuen aurkitzaileak dira. Jatunak ere badira eta *Itsasfesten* goi-mailako hainbat produktu eskainiko dituzte inguruan piknik bat egin dezazun.

Ramon Lizeaga - Elkano 1, Gazta is Cheese

Ramonek urteak daramatza gazta artisau-eran egiteko Euskadiko antzinako metodoak lantzen eta aztertzen. Inguruko baserritarrei eta artzainei erositako ardi-, ahuntz- eta behi-esnea erabiltzen du oinarritzat (Ikus *Itsasfest* bideoa, Ramonek Ion Aralarko artzainaren esnea nola biltzen duen ikusteko). Orain bere denda ere badu: Elkano 1, Gazta is Cheese.

Ezkurtxerri Basque Porks

Ezkurtxerri Getariako familia-enpresa txikia da. Txerriak hazten dituzte, eta eratorritako produktu guztiak beren lantegian prestatzen dituzte, artisau-eran eta tradizioari jarraikiz, usadio zaharraren arabera. Haien animaliak, jaiotzen direnetik, aske bizi dira Eguzkitza baserriko ehundik gora urteko arteen itzal eta babespean, non elikatzeko ezkurrik onenak topatzen dituzten.

Euskal Parrillak txerri paregabe horiek saiheskiak eta burualdeak erreko ditu.

Eko Taloa

Julen Altzelai da talo ekologikoen proposamen honen egilea. Bere artoaren irina eta kalitate handiko landare- eta haragi-produktuak erabiltzen ditu taloak egiteko.

Eusko Labela

Goizean lonja hurbilenetatik ekarritako hegaluzea dastatzeko aukera egongo da Eusko Labelen lankidetzari esker. Kalitate handiko arraina da. EAEko ontzietako arrantzaleek harrapatzen dituzte arrain horiek banan-banan eta sarerik gabe, arrantza-aparailu tradizionalekin: kanaberarekin (beita bizia) eta xaxiango arrantza edo kazako arrantzarekin. Metodo horiek arrantzaguneen iraunkortasuna eta itsas baliabideei eustea bermatzen dute. Eusko Labelak Euskal Autonomia Erkidegoan

ekoitzi, eraldatu eta/edo egindako nekazaritzako elikagaiak identifikatzen eta bereizten ditu, betiere elikagaien kalitate, espezifikotasun edo berezitasunak batezbesteko orokorra gainditzen badu.

Maisor

Maisor familia-enpresa da, arrantzaleak lehenik, handizkariak geroago. Kontserbagintzaren munduan murgildu ziren eta MAISOR artisau-lantegia sortu zuten Getariako kaian, lonjatik metro gutxi batzuetara. Kantauri itsasoko espeziekin bakarrik lan egiten dute (antxoa, hegaluzea, berdela, sardina...). Horiek Getariako itsasontziek harrapatzen dituzte arrantza mota tradizionalak erabiliz.

Itsasfest jaialdiaren barruan Getariako antxoa gazitua garbitu eta xerratan mozteko prozesuaren erakustaldia egingo dute. Artisau-produktu horrek tradizio handia du Euskal Herriko kostalde osoan. Horrez gain, «Antxoak prestatzeko tailerra» ere emango dute. Parte-hartzaileek antxoa xerratan zatitzen ikasiko dute, eta prestatzen duten flaskoa eramango dute.

Karabeleko

Karabeleko (www.karabeleko.org) nekazaritza ekologikoaren arloko etxalde esperimental aitzindaria da, eta baratzegintza ekologikoaren ekoizpen- eta kontsumo-kultura bultzatzen du. Zentro horretan barazki-espezie eta -barietate ezberdinen portaera aztertzen dute isurialde kantabriarreko ekoizle ekologikoei aholkularitza emateko. Aldi berean, buruko gaixotasunak dituzten pertsonentzat eta bazterketa-egoeran dauden bestelako taldeentzako errehabilitazio psikosozialeko zentroa ere bada.

*Itsasfest*en gunea izango dute proiektuaren berri eman dezaten eta Euskadin ikusten ez diren barazki eta berdurez gozatu ahal izateko.

Añanako Gatz Harana

Gesaltza Añanan (Araba) konkatuta, paisaia gazi honetan gizakiak ur gaziko iturburuak milaka urtez baliatzen jakin du bizitzarako funtsezko produktua eskuratzeko, gatza. Gatzagak munduko gatz-lantegi zaharrenetako batzuk dira; 6.500 urtetik gora daramatzate gatza etengabe ekoizten. Gatz Haranak tokia izango du *Itsasfest* festibalean, kultur paisaiaren adibide bikaina baita.

Eneek eta Biolur

Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseilua eta Gipuzkoako Nekazaritza Ekologikoaren Aldeko Elkarteak.

Gastronomiazko Euskal Anaiarte

Elkarteak lurraldeko hainbat ekoizleren tomateak dastatzeko aukera eskainiko du.

HITZORDU BEREZIAK

Euskal Kostaldeko UNESCO Geoparkea. Abuztuak 25.

Itsasfest festibalari ekingo zaio Euskal Kostaldeko UNESCO Geoparkean lurraren historian barrena ibiliz. Proposamenak DSS2016ren ekimen handi honen berezko osagaiak biltzen ditu: natura, jasangarritasuna, zientzia, artea eta kultura.

Hitzordua abuztuaren 25ean izango da, 9:30ean, Debako udalerrian. Itsasontzian sartu eta mundu osoan ezagunak diren flyscheko itsaslabarrak ikusiko ditugu. Asier Hilario –geologiako doktorea eta Geoparkeko zientzia-zuzendaria– izango da ohiz kanpoko gidaria. Esperientzia honetan lurraren historiako 50 milioi urte baino gehiagoko ibilaldia egingo dugu. Iraganeko klima eta paisaietan bidaiatuko dugu, eta horri esker gaur egungo paisaiaren eta klimaren konfigurazioa ulertu ahal izango dugu. Egon al dira oraingoaren antzeko bestelako klima-aldaketak lurraren historian?

Zumaiatik itsaslabarren gainean dagoen Elorriagako begiratoki ikusgarriraino abiatuko gara. Bazkaldu ostean, eta mareak berak jarritako ordutegiari jarraikiz, Zumaiara itzuliko gara; Algorriko kala txikian sartu eta lurraren historiako hondamendirik handienetako baten lekuko izango gara. Duela 66 milioi urte inguru dinosauoak eta espezie guztien % 70 inguru betiko desagertu ziren. Historia harkaitzetan idatzita dago eta sarritan errepikatu egiten da. Ez ezazu galdu gure natur erreferente handienetako batez gozatzeko aukera paregabe hau. Zientzia, artea eta kultura eskutik hartuta egongo dira uztailaren 27an *Itsasfesten*. Zatoz eta gozatu Geoparkeaz!

Euskal Kostaldeko Geoparkean inoiz idatzitako liburu zoragarrienetako bat dago. Haren orrialdeak itsas azpian eratu ziren eta, egun, geruzaz geruza, 13 kilometro baino gehiagoko itsaslabarren liburu jarraitua osatzen dute, non geologoek lurraren historiako ondoz ondoko 60 milioi urte baino gehiago irakur ditzaketen. Zumaia, Deba eta Mutriku artean dago Euskal Kostaldeko Geoparkea eta, geologia, paisaia eta kulturaren alderditik, ondare paregabea biltzen du bere barnean. Horrez gain, proposamen berezi eta erakargarrienetako bat eskaintzen du, natura-turismoari zein geoturismoari dagokionez. 2015eko azaroan, Geoparkea UNESCOko munduko geoparke izendatu dute, ezohiko balioa duten toki eta paisaia geologikoen garrantzia nabarmenduta.

Geo-ibilbideak: Victor Hugo eta Paramoudrak.

Ulia eta Jaizkibeleko itsaslabarrak, Europako kostaldea osatzen duten inguruen artean, altxortzat hartuta daude. Ereku osoak garrantzia komunitarioa du eta Natura Europa 2000 Sarean sartuta dago. Bi ibilbide hauek harri-forma konplexuak, era askotako ekosistemak, paisaia ikusgarriak eta gure herriaren historia lotzen dituzte.

Victor Hugo-ren geo-ibilbidea

Idazle frantsesak 1843an ezagutu zituen Pasaia eta Ulia eta Jaizkibeleko kostaldea. Ila bertikalki itsasora erortzen diren hareharri-geruzek, antzina hiria eta Pasaia Portua urez hornitzen zuten ubideek, arrasto historiko miresgarriek, besteak beste, ahaztu ezinezko ibilaldia osatzen dute. Ibilbidea Donostiako Mariaren bihotza elizaren paretik irtengo da eta, 7 kilometro egin ostean, Pasai San Pedron amaituko da. 4 ordu.

Euskaraz: abuztuak 28 / Elebiduna: abuztuak 13

Doako izen-ematea email bat bidaliz izen-abizen, NAN zenbaki eta adinarekin (geoibilbideak@dss2016.eu)

Paramoudren geo-ibilbidea

Eozeno garaiko hareharriek era guztietako itxurak eta koloreak erakusten dituzte. Horien artean "paramoudrak" nabarmentzen dira. Duela milloika urte, prozesu geologiko eta biologikoak batuz, sortutako harrizko esferak dira. Garrantzia handiko landareak gordetzen dituzten ekosistema bereziak, historia harrigarria eta itsasoaren urdina direla medio, inguruan egiten den edozein ibilbide, mendi-txango bat baino askoz gehiago bilakatzen da. Elkargunea Guadalupeko basilika izango da eta ibilbidea Justizeko merenderoan amaituko da (golfaren ondoan). Ibiltariak 8,5km egingo dituzte guztira.

Euskaraz: abuztuak 21 / Elebiduna: abuztuak 7 eta irailak 3

Doako izen-ematea email bat bidaliz izen-abizen, NAN zenbaki eta adinarekin (geoibilbideak@dss2016.eu)

ERANSKINA

ITSASFEST-EK EZ DU ARRASTORIK UTZI NAHI (EZ HANDIA GUTXIENEZ)

Eszenografia.

Jaialdiak ahalik eta inpakturik txikiena eragiteko helburua du, horregatik, erabilera bakarreko elementurik ez du egingo, eta baztertu egingo ditu berriro erabili ezin diren marketineko elementuak. Beste festibal batzuek aurretik erabili dituzten objektuak kaleratuko ditugu, hondakin-egurra berrerabiliko dugu, eta eszenografia historia baduten elementuekin sortuko dugu. Horretarako, Emaús, Baskegur eta DVelas erakundeen laguntza izango dugu, era horretan jaialdiaren balioak aintzat hartzen dituen gune atsegina sortzearen.

DVelas

Belagintzatik etorritako baztertutako material kopuru handia berriro erabiltzeko sormenezko erantzun gisa sortu da DVELAS (dvelas.com). Material hori nabigatzeko ona ez bada ere, iraunkortasun eta erresistentziako ezaugarri bikainak ditu. Bela bakoitza produktuen serie mugatuak sortzeko erabiltzen da; guztiek etiketa dute, jatorrizko belari buruzko informazioa emateko: jatorrizko portua, itsasontzia, bela mota, bela nork egin zuen eta bela-zenbakia.

Hondakinak. *Itsasfestek* ahalik eta hondakin kopuru txikiena sortzeko eta zuzen kudeatzeko konpromisoa hartu du. Horretarako, berriro erabiltzeko edalontziak erabiliko dira, eta janari-postuetan birziklatutako eta birziklatzeko moduko materialez eginiko ontziak erabiliko dituzte janaria emateko.

Janaria. Elikagai guztiak bertako ekoizle txikietatik etorriko dira, ez da egongo nekazaritzako elikagaien industriatik etorritako elementurik.

Zerbitzuak. Ez da komun kimikorik egongo.

IKERKETA- ETA KONTZEPTUALIZAZIO-TALDEA

Hainbat pertsonak ekarpena egin dute proiektuaren une ezberdinetan *Itsasfest* sortzeko.

Asier Hilario
Nerea Lizarralde
Lidia Pascal

HARREMANETARAKO

Susana Ribó

susana@sitio.nu / 656 703 510

nu komunikazioa

DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN 2016
EUROPAKO KULTUR HIRIBURUA
CAPITAL EUROPEA DE LA CULTURA
DSS2016.EU



HAMAIKA BEGIRADA
GURE BAZTERREI

URASUA
LURRA

MIL MIRADAS A
NUESTRO ENTORNO

ITSASFEST!

ONDARRETA + PEINE DEL VIENTO 27/08
EURIAREKIN TABAKALERA CON LLUVIA 11:00-00:30

HITZALDIAK
PONENCIAS

KONTZERTUAK
CONCIERTOS

TAILERRAK
TALLERES

BERTAKO JANARIA
COMIDA LOCAL ARTESANA

ZINEMA ETA NATURA
CINE Y NATURALEZA

KIROLA
DEPORTE

PENTSAMENDU-GUNEA | ZONA DE PENSAMIENTO · EKO GUNEA · GEOPARKEA
ALBAOLA ITSAS KULTUR FAKTORIA · UNTZI MUSEOA · AQUARIUM
CRISTINA ENEA · DONOSTITRUK · SURFRIDER FOUNDATION · MATER MUSEOA · AZTI-TECNALIA · MUSIKANAIZ-TXITA · HUCKPRENDE
TRUCAREC · GASTRONOMIAKO EUSKAL ANAIARTEA · EIBE · EGUZKI · SUTONDOTIK PLAZARA · JAIZKIBEL AMAHARRI

DELOREAN · MURSEGO PLAYS
JEAN PAINLEVÉ

BAYWAVES · GRUPO MARE BAIXA · ZINEMA@PEINE DEL VIENTO

DJ P3Z · PLAY'N'KIDS · JOSEBA MERCADER · DANZA DE LAS BESTIAS

BERTAKO JANARIA | COMIDA LOCAL ARTESANA

ELKANO 1 · GAZTA IS CHEESE @RAMON LIZEAGA · MAISOR · ABASOTAS · PANTORI · EZKURTZERRI · GOIABE · EKO TALOA
KARABELEKO · THE LOAF · ENEEK · BIOLUR · AÑANAKO GATZ HARANA · EUSKO LABEL

BIZITZA
VIDA

itsasfest.com

#itsasfest



BABESLEA / PATROCINADOR



LAGUNTZAILEAK / COLABORADORES



Donostiko Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

